

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2018ko MAIATZA

% 31,8 egin dute gora Euskal AEko apartamentu turistikoetako ostatu-gauak 2018ko maiatzean

Hotel, landetxe eta apartamentu turistikoetan % 11,5eko igoera izan da ostatu-gauetan, maiatzean

Euskal AEko apartamentu turistikoetan 2018ko maiatzean 24.909 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko maiatzean erregistratutakoak baino % 31,8 gehiago, Eustatek emandako datuen arabera.

Urte arteko ostatu-gauen bilakaera ere positiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban % 38,6 egin dute gora, Gipuzkoan % 83,4 eta Bizkaian, berriz, % 0,3.

Bestalde, 2018ko maiatzean 7.008 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, eta igoera, beraz, % 13,7koa izan da. Lurraldeen arabera banatuta, bidaiari-sarrerek % 96,9 egin dute gora Araban eta % 26,2 Gipuzkoan, baina Bizkaiaren kasuan % 8,8 egin dute behera.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerek, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Maiatza

	Gaualdiak		Sarrerek		Batez besteko egonaldia	
	05/2018	m/m-12 (%)	05/2018	m/m-12 (%)	05/2018	05/2017
EUSKAL AE	24.909	31,8	7.008	13,7	3,55	3,07
Estatukoak	16.418	34,2	4.243	11,0	3,87	3,20
Atzerritarrak	8.491	27,4	2.765	18,1	3,07	2,84
ARABA/ÁLAVA	6.947	38,6	1.266	96,9	5,49	7,80
Estatukoak	5.926	42,8	1.138	102,6	5,21	7,39
Atzerritarrak	1.021	18,2	128	57,2	7,98	10,61
BIZKAIA	9.053	0,3	3.206	-8,8	2,82	2,57
Estatukoak	5.224	-1,4	1.817	-14,4	2,88	2,50
Atzerritarrak	3.828	2,7	1.389	-0,1	2,76	2,68
GIPUZKOA	8.909	83,4	2.536	26,2	3,51	2,42
Estatukoak	5.268	89,0	1.288	13,1	4,09	2,45
Atzerritarrak	3.641	75,8	1.248	43,4	2,92	2,38

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia 3,55 egunekoa izan da aurtengo maiatzean, 2017ko maiatzekoan baino egun erdi bat gehiago, orduan batez besteko egonaldia 3,07 egunekoa izan baitzen. Araban

behera egin du batez besteko egonaldiak, iaz 7,80 egunekoa izan baitzen eta aurtengo maiatzean 5,49 egunekoa; Bizkaian 2,57 egunetik 2,82 egunera igo da; eta Gipuzkoan ere batez besteko egonaldiak gora egin du, 2017ko maiatzean 2,42 egunekoa izan baitzen eta aurtengo maiatzean 3,51 egunekoa.

2018ko maiatzeko turisten balantzea

Hotel, landetxe eta apartamentuetan, 309.686 sarrera erregistratu ziren 2018ko maiatzean, igoera, beraz, % 7,6koa izan da aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien % 46,4 erregistratu dira, eta sarreraren baturak % 5,2 egin du gora. Gipuzkoan Euskal AEko sarrera guztien % 39,2 erregistratu dira, eta igoera, beraz, % 10,3koa izan da. Arabaren kasuan, Euskal AEko sarreraren % 14,4 erregistratu dira, eta lurralde honetan igoera % 8,5koa izan da.

Ostatu-gauak, establezimendu turistiko hartzaile guztiak kontuan hartuta, % 11,5 egin dute gora, eta Gipuzkoan igoera % 14,3koa izan da, Araban % 9,9koa eta Bizkaian % 9,6koa.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Maiatza

	Gaualdiak		Sarrerak	
	05/2018	m/m-12 (%)	05/2018	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	609.812	11,5	309.686	7,6
Araba/Álava	83.974	9,9	44.512	8,5
Bizkaia	279.998	9,6	143.814	5,2
Gipuzkoa	245.840	14,3	121.360	10,3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62